

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 28

1470/2021 EBAZPENA, azaroaren 30ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez M.<sup>a</sup> del Mar Aramendia Alonso andrea Kirurgia Orokorreko Erizaintzako Gainbegirale (3., 3.) izendatu den, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

966/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Donostialdeko ESlan Kirurgia Orokorreko Erizaintzako Gainbegirale (3., 3.) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, M.<sup>a</sup> del Mar Aramendia Alonso andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetzako Donostialdeko ESlko Kirurgia Orokorreko Erizaintzako Gainbegirale (3., 3.).

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– M.<sup>a</sup> del Mar Aramendia Alonso andrea izendatzea Kirurgia Orokorreko Erizaintzako Gainbegirale (3., 3.), Osakidetzako Donostialdeko ESlan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2021eko abenduaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko ESlari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2021eko azaroaren 30a.

Donostialdeko ESlko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Pertsonen zuzendaria,  
ESTHER LITAGO SOLA.